

**Errugbia** Australia txapeldun Munduko Kopan

# Australiak bigarren Kopa

*Defentsan tinko jardun, eta gainera bi entsegu egin zizkion Frantziari*

Australia	Frantzia
<b>35</b>	<b>12</b>

**Australia:** Harry (Crowley, 74.m.), Foley (Paul, 84.m.), Blades; Giffin, Eales (kap.); Cockbain (Finegan, 55.m.), Kefu, Wilson (Connors, 74.m.); Gregan (Whitaker, 88.m.), Larkham; Roff, Horan (Grey, 88.m.), Herbert (Little, 48.m.), Tune; Burke.

**Frantzia:** Soulette (De Villiers, 48.m.), Ibañez (kap.) (Dal Maso, 79.m.), Tournaire; Benazzi, Pelous; Lievreumont (Costes, 67.m.), Juillet (Brouzet, 41.m.), Magne; Galthie (S. Castaignede, 76.m.), Lamaison, Dominici, Ntamack, Dourthe (Glas, 50.m.), Bernat-Salles; Garbajosa (Mola, 67.m.).

**MARKAGAILUA:** Australia. Bi entsegu: Tune (65.m.) eta Finegan (84.m.). Bi transformaketa eta zazpi zigor kolpe Burke (4. 14. 24. 43. 46. 58. 64. m.).  
**Frantzia.** Lau zigor kolpe: Lamaison (2. 12. 52. 60. m.).


**ARBITROA:** Andre Watson (Hego Afrika).

Koldo Alduntzin / Cardiff  
Berriemaile berezia

◀ **BERRIRO** Webb Ellis kopa jasotzeko gozamina izan zuen Australiak, atzo Cardiffeko Milurte Estadioan. Orain dela zortzi urte Farr-Jonesek jaso zuen, eta atzo John Eales kapitainak. Lau urte barru Australia eta Zeelanda Berrian jokatuko da V. kopa. Wallabiesak aurretik, 12-6 amaitu zuten lehen zatia, eta bigarrenean bi entsegurekin erabaki zuten norentzat izanen zen garaipena.

Joko parekatua espero zen partidaren zati handi batean, eta hala gertatu zen lehen zatian. Hastapeneko oren laurdenean elkarri erasoka jardun zuten, baina defentsak hautsi gabe. Halere, zigor kolpekin seina puntu egin zituzten Burkek eta Lamaisonek. Entsegu bana egiteko aukera ukan zuten, baina australiarrek uztartze irekia bost metrora eragin eta Benazzik eginiko entsegu epaileak balio gabetu izana izan ziren emaitzak.

Burke australiarrek bi zigor kolpe jaurtiketa huts egin zituen, baina berriro 9-6 aitzineratu zuen taldea 24. minutuan. Australia dominatzen ari bazen ere, larkhamek tinko jardun behar izan



Daniel Herbert Australiakoa, baloiarekin, eta Olivier Magne Frantziakoa, hura gelditu nahian, atzoko finalean.

zuen Lamaisonek erasoan emandako ostikada bati erantzuteko. Frantziarrek, gero, Wallabiesen entsegu lerrotik hiru metrora heldu ziren uztartze-laxo sarkorrarekin. Arauzko denbora beteta zegoela lortu zuen Burkek azken zigor kolpea gauzatzea: 12-6.

Zati horretan ikusi ahal

izan genuen jokaldiren bat bizpahiru fasetan egiten, baina entsegurik ezin egin. Eskasetan parean aritu ziren, eta baita gainerako arloetan ere. Bigarren zatian huts batekin ekin zion Kamaisonek, hagetarako jaurtiketan. Burke, ordea, primeran baliatu zen Larkhamek eragindako zigor kol-

peaz, 15-6koa markagailuratzeko. Handik aurrera Wallabiesak izan zen baloia-aren jabeak, eta aukerak sortzen hasi ziren.

## Frantziak behera egin zuen amaieran

Presioak noizbait eman behar zuen etekina, eta hori

Boga-Boga kantua ere ez zuen berotu giroa

■ **WEB ELLIS IV.** Munduko Koparen egunik handiena zen atzokoa, eta hala prestatu zuten galesek. Hasiera ekitaldian bezalaxe, agurrak ere era xumea izan zuten eta kantuan. Euskaldunik ez zen atzoko finalean zelaian, ikurrinik ere apenas Frantziak jokatu arren, izan ohi baita baten bat hola-koetan. Milurte Estadioa leporaino bete zuten 72.000 lagunek, ordea, Boga-Boga abestia entzun zuten bozgorailu indartsuetatik; hori ere ohi-koa izaten da. Bistan da abesti hori kantatzen zekitenak gutxi batzuk gine-la estadioan bertan, baina balio beza jokalariek ezaren hutsunea betetzeko, ea lau urte barru abestiaz gain jokalariek euskaldunak ere ikusten ditugun.

26. minutuan izan zen. Oso jokaldi landua burutu zuten australiarrek. Uztartze irekiak eragin zituzten aurrelariak, zelai erditik hasita. Azkenekoan Gregan uztartze erdiak jaso zuen baloia, eta metro batzuk egin ondoren, Horani eman zion baloia, horrek Giffini eta Tune eskuin hegalak amaitu zuen jokaldia eskuin banderaxoan entsegua eginda: Kopako bere hirugarrena.

Gero eta argiagoa zen australiarren nagusitasuna. Burkek zazpigarren zigor kolpea gauzatu ondoren, partidako bigarren entsegu egin zuen Finegan zelairatu berriak, indar handiz sartuta. Beste behin eskasa irabazi zuten australiarrek, eta Greganek xixtera pasea egin zion Finegani, entsegu lerrotik 23 metrora. Jokaldi bikaina. Hondarreko minutuetan jokalariek aldaketak nagusitu ziren.

Burke 25 puntu egin zituen guztira, eta horiekin 100eko muga gainditu zuen Kopan honetan. Lamaisonek, berriz, 12 egin zituen, eta Kopan osoan 65 puntu. Australiarrek baloia jabe-tzan egin zuten aldea gehienbat.

## Lehenik jorratu eta gero uzta jaso

Koldo Alduntzin

EZ zen gehienek pentsatzen zutenaren oso bestelakoa izan atzoko finala. Hau da, jokoan alde handirik ez eta irabazi behar zuenak oso piskanaka egingo zuten. Australiak ez zuen batere zulorik utzi defentsan, eta jokaldi gehienetan lerroan egin zuen. Frantzia biziki saiatu zen zuloa egiten, baina gutxitan lortu zuen. Berea ere ez zen txarra izan, baina bietako batek amore eman behar zuen. Frantziak eman zen.

Hankako jokoak erabaki

zezakeela genion atzoko artikuluan, baina bi taldeek bazekiten arlo horrek zer garrantzia zuen, eta ez zen finalerdietan bezain erabakigarria izan. Halere, Burkek kasik aukera guztiez baliatu zen eta Larkhamek piskanaka hobetu egin zuen. Australiak bigarren zatian lortu zuen Frantzia nekaraztea, eta orduan lortu zuen espazioa jatea frantziarrei, jokaldiak lauzpabost fasetan eginda alegia.

Jokalariek bat nabarmenduko nuke guztien gaine-

tik: Australiak Gregan uztartze erdia. Kopan honetan bi entsegu egin ditu, eta atzo taldearen jokoari behar zuen gatz eta piperra eman zion. Jakin izan zuen aitzin-jokalariek motibatzen, eta behin eta berriro sarrarazi zituen kontrarioa lotzeko. Gainera, amorru bizian egin zuen defentsa. Bestetik, Frantziaren joko irudimentsuak ezintasuna ukan zuen atzo, Australiak Kopako defentsarik onenarekin erantzun baitzion.